

[EUSK/CAST] Ertzaintzak sistema biometrika eguneratu du

AHOZTAR ZELAIETA :: 14/08/2023

Verint Systems enpresa israeldarraren esku zegoen ertzaintzaren identifikazio-softwarea Migertronek eguneratuko du, eta haren negozioak mugen kontrola du ardatz.

[Euskera]

EAEko poliziaren identifikazio-softwarea, Verint Systems enpresa israeldarraren (Pegasus spywarearen banatzailea) gertuko enpresa baten esku zegoena, Migertronek eguneratuko du, eta haren negozioak mugen kontrola du ardatz.

Ertzaintzak ahotsaren identifikazio biometrikoko sistema bat erosi zion Agnitio enpresari. Enpresa horren partnerra Verint Systems zen AEBetan, Pegasus spywarea banatzen zuen Israelgo enpresa, eta komunikazioak atzemateko sistema bat ere fabrikatu zuen, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak gaur egun erabiltzen duena. Ahotsa identifikatzeko sistema Migertron enpresak eguneratuko du, mugako sarbideak kontrolatzeko teknologia-hornitzaileak.

Agnitio eta Nuance Communications konpainiek Ertzaintzaren ahotsa identifikatzeko sistemaren euskarri-zerbitzua egin dute 2021era arte, baina Batvox izeneko ahots-identifikazio biometrikoaren sistemaren eguneraketa Migertron horren eskuetan erori da. Eguneratzeak 164.995 euroko kostua izango du eta prozesua 2024ko maiatzean amaituko da.

Migertron, mugako sarbideak kontrolatzeko teknologia-hornitzailea, Indarkeriarik Gabeko Ekintzaren aldeko Nazioarteko Institutuaren "Giza eskubideen urraketak deportazioetan" izeneko txostenean aipatzen da. Zehazki, aireportuetan erabiltzen diren Hatz Identifikazioko Azpisistema Automatikoko sistemen softwarea eta hardwarea hornitzen edo mantentzen ditu.

Halaber, Centre Delàs d'Estudis per la Pau zentroak egindako "La espiral de violencia de la España Fortaleza: Armas para la guerra y militarismo para blindar las fronteras" monografikoan aipatzen dute, kasu honetan mugen militarizazioaren onuradun nagusietako bat bezala.

Azken bi urteetan, Ertzaintzak Migertron Espainiako Armadarentzako lehergailuak indargabetzeko mekanismoen hornitzailearen esku utzi ditu, halaber, dokumentazioaren irakurle-egiaztatzaileen hornikuntza, eskaneatzeko eta aztarnak aztertzeko sistema bat eta balen identifikaziorako sistemetaz ere enkargatu da enpresa hau.

Oraindik ez dakigu noiz erosi zuen Ertzaintzak Batvox ahotsa identifikatzeko sistema, Agnitio "espioitza enpresak" egina. Baina Eusko Jaurlaritzak sistemaren "mantenimendua, euskarria eta eguneratzea berritzeko" egin zuen lehen kontratua Agnitiori esleitu zitzaion 2016ko urtarrilean. Bost urte lehenago, Wikileaks mundu mailan "espioitza masiboa" egiten zuten 160 konpainien artean kokatu zuen, Spy Files izeneko filtrazioaren barruan.

Era berean, Agnitoren partnerra, AEBetan, Verint Systems israeldarra zen, 2006tik Ertzaintzaren Komunikazioak Atzementeko Sistemaren hornitzailea.

Eusko Jaurlaritzak hainbat enpresa gonbidatu zituen 2021eko lizitazioan parte hartzera: Dars Telecom, Excem (Verint Systemsen hornitzaile ofiziala) eta BAE Systems, hirurek banatzen zuten Pegasus programa.

Telebista eta jostailuen bidezko espioitza

Agnitio enpresa 2004an sortu zen Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko ikerketa-sail bateko spin-off gisa. Bere lehen bezeroa Guardia Zibila izan zen eta nazioarteko hedapena lau urte geroago hasi zen AEBn, Armadarentzat eta "hiru letrako agentzientzat" lan eginez.

"Nazioartekotzean pixka bat pasatu ginen, nazioartekotzea emanda zegoen, poliziei saltzen genielako, eta behin Guardia Zibila eta Polizia Nazionalea saltzen zenituen... Ertzaintza eta Mossoak asko jota saiatzen zara, baina kanpora joan behar duzu", zioen 2017an Agnitioko ordezkari batek.

Ertzaintzarentzat lanean hasi eta gutxira, Nuance Communications enpresak erosi zuen Agnitio, Hego Koreako Samsung konpainiaren Smart TV telebista-gailu adimendunetako ahots-datuak erabiltzen zituen enpresak. Ameriketako Estatu Batuetako Fundación Fronteras Electrónicas elkarteko ordezkari batek Asiako enpresaren modus operandi-a konparatu du George Orwellen "1984" eleberrian planteatutako anaia handi zaintzailearen praktikarekin.

Konpainiak Ertzaintzaren ahotsa identifikatzeko sistemari euskarria ematen jarraitzen zuen bitartean, Pribatutasun Elektronikoko buruzko Informazio Zentroak, Komertzialen Haurtzaro Askearen aldeko Kanpainarekin, Demokrazia Digitalerako Zentroarekin eta Kontsumitzaileen Batasunarekin batera, kexa bat aurkeztu zuen Merkataritzako Batzorde Federalean, haurrentzako jostailu batzuk Nuance Communications enpresaren instalazioetan gordetzen ziren elkarrizketak grabatzen zituztela ziurtatuz.

Nuance Communicationsek SpeechMagic izeneko ahotsa ezagutzeko sistema bat saldu zion Eusko Jaurlaritzari 2010ean, Osakidetzako zenbait ospitaletarako, 300.000 euro ingurukoa. Urtebete geroago, Osakidetzak "hainbat ospitaletarako ahots bidezko informazio-sistema" bat erosi zion 423.376 euroren truke.

[Castellano]

El software de identificación de la policía vasca, que estaba en manos de una empresa cercana a la israelí Verint Systems, distribuidora del spyware Pegasus, será actualizado por Migertron, cuyo negocio se centra en el control de fronteras.

La Ertzaintza adquirió un sistema de identificación biométrica de voz a la empresa Agnitio, cuyo partner en EEUU era Verint Systems, firma israelí distribuidora del spyware Pegasus y que también fabricó un sistema de interceptación de las comunicaciones utilizado en la actualidad por el Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco. La actualización del sistema de identificación de voz lo terminará la empresa Migertron, a su vez proveedora de

tecnología para el control de accesos fronterizos.

Las compañías Agnitio y Nuance Communications han llevado a cabo el servicio de soporte del sistema de identificación de voz de la Ertzaintza hasta 2021, pero la actualización del sistema de identificación biométrica de voz denominado Batvox ha caído en manos de la citada Migertron. La actualización costará 164.995 euros y el proceso culminará en mayo del 2024.

Migertron, una proveedora de tecnología para el control de accesos fronterizos, aparece mencionada en el informe sobre “[Vulneraciones de los derechos humanos en las deportaciones](#)”, del Instituto Internacional por la Acción Noviolenta. En concreto, se dedica a suministrar o mantener el software y hardware de los sistemas Subsistema Automático de Identificación Dactilar utilizados en aeropuertos.

También la citan en el monográfico “[La espiral de violencia de la España Fortaleza: Armas para la guerra y militarismo para blindar las fronteras](#)”, elaborado por el Centre Delàs d’Estudis per la Pau, en este caso como una de las principales beneficiarias de la militarización de fronteras.

En los últimos dos años, la Ertzaintza también ha confiado a Migertron, proveedora de mecanismos de desactivación de explosivos para el Ejército español, los suministros de lectores-verificadores de documentación, un sistema de escaneado y examen de huellas y un sistema de identificación balística.

Aún no se conoce cuándo adquirió la Ertzaintza el Sistema de Identificación de voz Batvox, fabricado por la “empresa de espionaje” Agnitio. Pero el primer contrato del Gobierno Vasco para la “renovación del mantenimiento, soporte y actualización” del sistema fue adjudicado a Agnitio en enero del 2016. Cinco años antes, [Wikileaks](#) la había colocado entre las 160 compañías que se dedicaban al “espionaje masivo” a nivel mundial dentro de su filtración denominada Spy Files. Asimismo, el partner en EEUU de Agnitio era por entonces la israelí Verint Systems, a su vez proveedora desde 2006 del Sistema de Interceptación de las Comunicaciones de la Ertzaintza.

Varias firmas fueron invitadas por el Gobierno Vasco a participar en la licitación posterior, la de 2021: Dars Telecom, Excem (proveedor oficial de Verint Systems) y BAE Systems, las tres distribuían el programa Pegasus.

Espionaje a través de televisores y juguetes

La empresa Agnitio nació en 2004 como spin-off de un departamento de investigación de la Universidad Politécnica de Madrid. Su primer cliente fue la Guardia Civil y la expansión internacional comenzó cuatro años después en EEUU, trabajando para el Ejército y “agencias de tres letras”.

“Nos pasamos un poco en la internacionalización, la internacionalización venía dada, ya que vendíamos a policías y una vez que vendes a la Guardia Civil y a la Policía Nacional... intentas a la Ertzaintza y a los Mossos como mucho, pero te tienes que ir fuera”, [afirmaba](#)

en 2017 un representante de Agnitio

Poco después de empezar a trabajar para la Ertzaintza, Agnitio fue comprada por la firma Nuance Communications, una empresa que manejaba los datos de voz de los dispositivos de televisores inteligentes Smart TV de la compañía surcoreana Samsung. Un representante de la asociación estadounidense Fundación Fronteras Electrónicas comparó el modus operandi de la firma asiática con la práctica del vigilante gran hermano planteada en la novela “1984” de George Orwell.

Mientras la compañía seguía dando soporte al sistema de identificación de voz de la Ertzaintza, el Centro de Información de Privacidad Electrónica, junto a la Campaña por una Niñez Libre de Comerciales, el Centro para la Democracia Digital y la Unión de Consumidores, presentaron una queja ante la Comisión Federal de Comercio asegurando que algunos juguetes para niños grababan conversaciones que se almacenaban en instalaciones de Nuance Communications.

Nuance Communications vendió al Gobierno Vasco en 2010 un sistema de reconocimiento de voz denominado SpeechMagic para diversos centros hospitalarios de Osakidetza valorado en cerca de 300.000 euros. Un año después, Osakidetza le compró por 423.376 euros un “sistema de información por voz para diversos centros hospitalarios”.

<https://www.elsaltodiario.com/armamento-policial/ertzaintza-actualiza-sistema-biometrico-voz-firma-militarizacion-fronteras-luco>

<https://eh.lahaine.org/una-empresa-que-se-lucra>